

D) Hilarriaren goialdean inkrustazioak egin ahal izango dira, beti ere 1 cm baino gehiago ateratzen ez bada. Ez da min fisikoa eragin deseakeen inkrustazio zorrotz edo ebakitzailerik onartuko.

E) Debekatuta dago artikulu honetan aurreikusita ez dagoen bestelako elementu apaingarri iraunkorrik (kateak, landareak, eta abar) ezartzea.

IV. KAPITULUA

Ehorzketa, desehorzketa eta lekualdatzreak

22. artikulua.- Gorpuak edo gorpuzkinak ehortzi, hilobitik atera eta lekuz aldatzeko indarrean dagoen Hilarietako Osasun Zaintzarako arautegiak horren gainean dioena errespetatuko da.

V. KAPITULUA

Hileta-eskubidea eskualdatzea

23. artikulua.- 6. Artikulan araututako hileta-eskubideak ezingo dira kostubidez edo doan eskualdatu "intervivos" edo "mortis causa" egintzen bidez.

VI. KAPITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

24. artikulua.- Guztiz debekatuta egongo da hilerran edozein material edo objektu jartzea, ez bada aurretik udalak horretarako baimena eman duela.

25. artikulua.- Alkateak 10 eguneko epean baimenik ez duten objektuak edo materialak kentzeko agindua emango du; agindua betetzen ez bada, berehala kenduko dira objektu eta material horiek, eta, gainera, arau-hauslei kargu hartuko zaie


XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Ordenantza honetan ez araututakoak indarrean dagoen Hilarietako Osasun Zaintzarako arautegiak eta gainerako arauak xedatuko dituzte.

BIGARRENA.- Ordenantza hau behin betiko onartu eta gero, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarriko da.

Eranskina

Hilarriaren neurriak (cm)



TARIFA: Hilobiratzeagatik eta hilobia esleitzeagatik ordaindu beharreko tasa:

- Hilkutxa: 128,18 €
- Errautsen ontzia: 49,92 €

KIROLDEGIA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenari jarraituz, udal honek ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ezarri eta

D) Se podrán hacer incrustaciones en el elemento superior de la lápida siempre y cuando no sobresalgan más de 1 cm. No se permitirán incrustaciones punzantes o cortantes que den motivo de riesgo de daño físico.

E) Queda prohibido colocar otros elementos ornamentales permanentes no previstos en este artículo (cadenas, plantaciones, etc.)

CAPITULO IV

Inhumaciones, exhumaciones y traslados

Artículo 22.- Las inhumaciones, exhumaciones y traslados de cadáveres o restos se regirán por las normas específicas del Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria vigente.

CAPITULO V

Transmisión del derecho funerario

Artículo 23.- Los derechos funerarios regulados en el artículo 6 no podrán ser transmitidos de forma Onerosa o gratuita por actos "inter vivos" o "mortis causa".

CAPITULO VI

Infracciones y Sanciones

Artículo 24.- Queda terminantemente prohibida la colocación en las dependencias del cementerio de cualquier material u objeto, salvo existencia de previa autorización municipal.

Artículo 25.- Por la Alcaldía se emitirá Orden para la retirada en el plazo de diez días naturales de aquellos objetos o elementos no autorizados, procediéndose en caso de incumplimiento a la retirada inmediata de los mismos con cargo a los infractores.


DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA.- En lo no previsto en la presente Ordenanza se estará a lo dispuesto en el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria y demás normas en vigor.

SEGUNDA.- La presente Ordenanza comenzará a regir a partir del día siguiente de su publicación en el BOTHA tras su aprobación definitiva.

Anexo

Medidas de la estela en cm



TARIFA: Tasa por enterramiento y asignación de sepultura:

- Caja mortuaria: 128,18 €
- Vasija con cenizas: 49,92 €

POLIDEPORTIVO

ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACION DE SERVICIOS PUBLICOS Y REALIZACION DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio de Álava, establece y exige tasas por la prestación de los servicios y la realización de las actividades que se recogen en el Anexo, en

exijitzen ditu, ordenantzak adierazitako moduan; tasa horiek ere ordenantza honetako zati dira.

2. artikulua.- Ordenanza udalerri osoan ezarriko da.

II.- ZERGA GAIA

3. artikulua.- Udalak udal zerbitzua edo jarduera benetan ematea edo egitea izango da zerga gaia, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo zeharka zerbitzu hori eskaini delako, gizabanako horiek zerbait egitearen edo ez egitearen ondorioz.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluak aipatzen dituen Entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen dutenean.

2.- Hurrengoak zergadunaren ordezkoak izango dira:

- a) Etxebitzeten edo lokalen erabiltzaileentzat onuragarriak edo eragingarriak diren zerbitzuengatik edo jarduerengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Zenbait kasutan, dagokien onuradunei ordainarazi ahal dizkiete tasa horiek.
- b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkartek, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamendua eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzu mantentzea.
- c) Tasak lurri eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza-baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua.-

Hurrengoek ordaindu beharko dituzte tasak.

- a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu badituze, eskatu duena.
- b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituze eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiorenea.

6. artikulua.- Ordenanza honetatik ateratzen diren zerga-zorraz, subjektu pasiboaarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ordaindu beharko dituzte.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.- Salbuespenak eta bestelako zerga-onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokoren menpe egongo da beti.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua.- Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga-oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua.- Zerga-kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honakoa izango da: zerga-oinarriari horretarako propio ezarritako kopuru bat edo tarifa bat aplikatzetik ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatzetik ateratzen dena.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.- Tasa zerbitzua ematen edo jarduera egiten denean sortuko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.- Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

los términos de la presente ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

Artículo 2.- La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial municipal.

II HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.- Constituye el hecho imponible la efectiva prestación del servicio o realización de la actividad por el Ayuntamiento, bien porque haya sido instada, bien porque indirectamente haya sido provocada por las acciones y omisiones de los particulares.

III. SUJETO PASIVO

Artículo 4.-

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava, que soliciten los servicios o actividades o que resulten beneficiadas o afectadas por aquéllos.

2.- Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente:

- a) En las Tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los ocupantes de viviendas o locales, los propietarios de dichos inmuebles quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.
- b) En las tasas establecidas por la prestación de servicios de prevención y extinción de incendios, de prevención de ruinas, construcciones y derribos, salvamentos y, en general, de protección de personas y bienes, comprendiéndose también el mantenimiento del servicio, las entidades o sociedades aseguradoras del riesgo.
- c) En las tasas establecidas por el otorgamiento de las licencias urbanísticas previstas en la normativa sobre el suelo y ordenación urbana, los constructores y contratistas de obras.

Artículo 5.

Están obligados al pago de las Tasas.

- a) En el caso de servicios o actividades realizados a solicitud de los particulares, quienes lo soliciten.
- b) En el caso de servicios o actividades realizados sin haber sido solicitados por los particulares, pero motivados por actuaciones o omisiones de ellos, aquellos a quienes les sean imputables dichas actuaciones u omisiones.

Artículo 6.- Junto al sujeto pasivo responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza las personas que en su caso se mencionen en las normas de aplicación de las Tarifas.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 7.- La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 8.- Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio en los términos contenidos en el Anexo.

VI. CUOTA

Artículo 9.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

VII. DEVENGZO Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 10.- La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.

VIII. LIQUIDACION E INGRESO

Artículo 11.- Por el Ayuntamiento se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose la cantidad liquidada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenida en el Anexo.

12. artikulua.- Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta zergen arau-haus-turetan eta dagozkien zehapenak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurraldetako Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra xedatutakoa aplikatuko da.

Eranskina

A) EPIGRAFEA: ESTOLDERIA



TARIFA

ESTOLDERIA

- Estolderia, bi hilabeteko 6,30 €
- Saneamenduko hodi biltzailerik ez duen etxebizitza bakoitzaren

hobia:

5 m ³ edo gutxiago	19,06 euro/bi hilabeteko
5 m ³ tik gora	25,40 euro/bi hilabeteko

- Saneamenduko hodi biltzailerik ez duten etxebizitzek batera duten hobia: (*) tarifa etxebizitzen artean hainbanatu da, eta ezingo da inoiz izan estolderiagatik ordaindu beharreko tasa orokorra baino txikiagea)

2- etxebizitza:

5 m ³ edo gutxiago	9,52 euro/bi hilabeteko
5 m ³ tik gora	12,70 euro/bi hilabeto

3- etxebizitza:

5 m ³ edo gutxiago	6,36 euro/bi hilabeteko
5 m ³ tik gora	8,46 euro/bi hilabeto

4- etxebizitza:

5 m ³ edo gutxiago	6,30 euro/bi hilabeteko (*)
5 m ³ tik gora	6,34 euro/bi hilabeto

- Saneamenduko hodi biltzailerik ez duen etxebizitza bakoitzak ibaira zuzenean isurtzen duena, bi hilabeteko: 4 euro
- Sare orokorrari lotzeko eskubideengatik erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko tasa: 240 euro

ZERBITZUA

- 1. Azpiegituraren etorkizunean egiten diren eraikuntzak edo aldaketak:

Saneamendu sarerik baldin badago, kanalizazioa egingo da erai-kinetik hasi eta jabetza mugaraino, teila koloreko eta PTE % 2 duen 200 milimetroko tutua erabiltsa.

Jabetzaren mugan, kuxeta bat (50 x 50) eraikiko da, eta kuxeta horretatik hodi biltzaille nagusiraino teila koloreko eta PTE % 2 duen 250 milimetroko tutua ezarriko da. Lotura horretan 90 centimetroko diametroa duen kuxeta eraikiko da.

Saneamendu sarerik ez badago, kanalizazioa eraikinetik finkatuta dagoen pare bat metroraino egingo da, teila koloreko eta PTE % 2 duen 200 milimetroko tutua erabiltsa. Ondoren, homologatutako hobi septiko bat ezarriko da iragazki biologikoarekin. Jabetzaren irteeran, berri, kuxeta bat (50 x 50) eraikiko da, eta, hain zuzen ere, kutxetaren irteera ouri uren kolektorearekin konektatuko da, teila koloreko eta PTE % 2 duen 250 metroko tutua erabiltsa.

Euri-uren sarean, etxebizitzatik hasi eta jabetza mugaraino bananduta joan beharko da, eta, soili, saneamendu sarerik egon ezean nahastu ahal izango da, jabetzaren mugan eta hobi septikoaren ondoren.

Ezin izango da inolaz ere ur beltzak eta euri urak nahastu, hau da, sistema bereizlea izango da.

Esandako obra horiek guztiek udal zerbitzuek egiazta eta ikus-katuko dituzte.

2. Finkatutako etxebizitzak

Ez saneamenduko hodi biltzailerik ez ur beltzen arazketarako sistemarik ez duten finkatutako etxebizitzek 2 euroko tasa ordinaraziko zaie, ibaira zuzenean isurtakoagatik ordaindu beharreko kanona baita, Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen Testu Bateratuaren arabera.

Artículo 12.- En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Álava.

Anexo

EPIGRAFE A) ALCANTARILLADO



TARIFA

ALCANTARILLADO

- Por alcantarillado, cada bimestre 6,30 €
- Por cada fosa en cada vivienda sin colector de saneamiento:

Hasta 5 m ³	9,06 euros/cada bimestre
A partir de 5 m ³	25,40 euros/cada bimestre

- Por cada fosa compartida entre varias viviendas sin colector de saneamiento: (*) la tarifa se dividirá entre las viviendas por partes iguales, esta nunca podrá ser inferior a la tasa general por alcanta- rillado)

2-viviendas:

Hasta 5 m ³	9,52 euros/cada bimestre
A partir de 5 m ³	12,70 euros/cada bimestre

3-viviendas:

Hasta 5 m ³	6,36 euros/cada bimestre
A partir de 5 m ³	8,46 euros/cada bimestre

4-viviendas:

Hasta 5 m ³	6,30 euros/cada bimestre (*)
A partir de 5 m ³	6,34 euros/cada bimestre

- Por cada vivienda sin colector de saneamiento por vertido directo al río cada bimestre 4 euros
- Tasa por derechos de acometida a la red general por usuario 240,00 euros

DEL SERVICIO

1. Futuras construcciones o modificaciones de infraestructura:

Si existe red de saneamiento, se efectuará canalización desde el inmueble hasta el límite de la propiedad, con tubo de 200 milímetros color teja y 2% de P.T.E.

En el límite de la propiedad, se construirá una arqueta de 50 X 50, a partir de dicha arqueta y hasta el colector general, se colocará tubo de 250 milímetros de color teja con pendiente de 2% P.T.E. En dicho enlace se construirá una arqueta de 90 centímetros de diámetro.

Si no existe red de saneamiento, se efectuará canalización desde el inmueble hasta unos dos metros del cierre de la finca con tubo de 200 milímetros de color teja y una pendiente de 2% P.T.E. A continuación se instalará un fosa séptica homologada con filtro biológico. A la salida de su propiedad se construirá una arqueta de 50 X 50., la salida de la arqueta irá conectada al colector de pluviales con tubo de 250 milímetros de color teja y una pendiente de 2% P.T.E.

La red de pluviales partiendo desde la vivienda hasta el límite de la propiedad deberá ir separada y solamente en el caso de no existir red de saneamiento podrá mezclarse, en el límite de la propiedad y después de la fosa séptica.

En ningún caso de podrán mezclar las aguas fecales con las pluviales, es decir, el sistema es separativo.

Tanto la ejecución de las citadas obras como su ejecución serán verificadas y supervisadas por los servicios municipales

2. Viviendas consolidadas

A aquellas viviendas consolidadas que no dispongan de colector de saneamiento ni de sistema de depuración de fecales, se les girará la tasa de 2 euros, a razón del canon de control de vertidos directos al río, según el Texto Refundido de la Ley de Aguas aprobado por el Real Decreto Legislativo.



**C) EPIGRAFEA: ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA
ESKAINTZEA**

ETXEBIZITZAK	51,08 euro
PROFESIONALEN LOKALAK	102,22 euro
MERKATARITZA	51,08 euro

KUDEAKETA ARAUAK:

Zerbitzua ezartzen den unean bertan sortzen da zerga ordaintzeko beharra, zaborraren bilketa denek eta nahitaez egin beharreko zerbitzua baita, eta ulertzen da zerbitzu hori erabiltzen dutenak etxebitzitzak, lokal profesional eta merkataritzako jardueren titularrak direla.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren erabiltzaileak beste sailkapen bat eskatu ahal izango du, baina inolaz ere zerbitzuan baja emateko.

?Behin jasotzen hasitakoan, zabor biltzeko zerbitzuar ezin izango zaio uko egin, ezta zaborra biltzen duen zerbitzuarenengatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeari utzi ere. Dena den, interesdunak berariatz eskatzen badu, dendeak ordaindu beharreko tasa aldatu ahal izango da. Horretarako, denda jarduerari utzi eta udal teknikariek uzte hori onartu egin behar izan dute. Horrelakoetan, tasa orokorra koblaturuko da.

Ez dute zaborra biltzen duen zerbitzuarenengatik ordaindu beharko aurri egoeran daudenek eta eraiste lanek.

C) EPIGRAFEA: UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK

- Udalerrrian erroldatutako 2 edo 4 lagunek jokalekua ordubete erabiltzeagatik, bakoitzak 3,61 euro.
- Udalerrrian erroldatuta ez dauden 2 edo 4 lagunek pala eta pilota partidetarako jokalekua ordubete erabiltzeagatik, bakoitzak 4,21 euro.
- Udalerrrian erroldatutako lagunek futbol, futbito eta saskibaloiko partidetarako jokalekua ordubete erabiltzeagatik, bakoitzak 4,81 euro.

• Udalerrrian erroldatuta ez dauden lagunek futbol, futbito eta saskibaloiko partidetarako jokalekua ordubete erabiltzeagatik, bakoitzak 9,02 euro.

- Ordubetez erabilitako argi-bloke bakoitzeko (3 daude), 1,20 euro.
- Dutxako euro bat.

• Prezio horiek ez dituzte ordaindu beharko talde federatuek nahiz ez federatuek (azken horiek aurretik urteko plana zehaztu badute udalarekin); halaber; eskola-orduetan eta eskolatik kanpoko orduetan ikasleek egindako jarduera direla-eta ez da tasrik ordainduko.

Honako zerga-ordenantza hau eta eranskinak 2008ko abenduaren 23an onartu ziren behin betiko; ALHAOn argitaratzen direnean sartuko dira indarrean, eta horrela jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabakitzten den arte.

ARAMAIO

8584

Aramaioko BIPBren aldaketa puntualari behin-behineko onarpena ematea.

Aramaioko Udalbatzak 2008.12.02an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Aramaioko Ibarren Gune Historikoaren Berritzte Integratuarti buruzko Plan Bereziaren (BIPB) aldaketa puntualaren espedienteari behin-behineko onarpena eman zion.

Aldaketa puntualari buruzko espedientea hilabetez jarriko da jendaurrean, interesdun orok aztertu eta egoki deritzen alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Hilabete hori iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatuko da.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Aramaion, 2008ko abendauren 15ean.– Aramaioko alkatea-udalburua, ASIER AGIRRE MUGARZA.



D) EPIGRAFE-B) PRESTACION DEL SERVICIO PUBLICO DE RECOGIDA DE BASURAS.

VIVIENDAS	51,08 euros
LOCALES PROFESIONALES	102,22 euros
COMERCIO	51,08 euros

NORMAS DE GESTIÓN:

La obligación de contribuir nace con la implantación del servicio, por tener la condición de obligatoria y general, entendiéndose utilizado por los titulares de viviendas, locales profesionales y actividades comerciales.

Se solicitará el cambio de clasificación de la prestación del servicio de recogida de basura por parte del solicitante, no pudiéndose nunca dar de baja de la prestación de dicho servicio.

Una vez iniciado, nunca se podrá dar de baja o eximir del pago de la tasa por prestación del servicio de recogida de basura. No obstante, mediante solicitud expresa del interesado, se podrá modificar la tasa relativa a los comercios, cuando la actividad hubiera cesado y así lo estimasen los técnicos municipales. En tal caso se girará la tasa general.

Estarán exentos del pago del impuesto por prestación del servicio de recogida de basura los supuestos de derribo y ruina.

EPIGRAFE C) PRESTACION DEL SERVICIO DE INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES

- Por hora de cancha para utilizar por 2 o 4 personas empadronadas en el Municipio, la cantidad de 3,61 €.
- Por hora de cancha para utilizar 2 o 4 personas en partidos de pala, pelota, etc., para persona no empadronada en este Municipio, la cantidad de 4,21 euros.
- Por hora de cancha para utilizar en partidos de fútbol, futbito, baloncesto, etc., para personas empadronadas en este Municipio, la cantidad de 4,81 euros.
- Por hora de cancha para utilizar en partidos de fútbol, futbito, baloncesto, etc., por persona no empadronada en este Municipio, la cantidad de 9,02 euros.
- Por bloque de luz (existen 3) a la hora, la cantidad de 1,20 euros.
- Por ducha, la cantidad de 1 euros.
- Quedan exentos aquellos grupos federados ó no que previamente hayan acordado con el ayuntamiento con un plan anual, así como las actividades realizadas por los alumnos de la ikastola dentro del horario lectivo ó extraescolares.

Las presentes Ordenanzas fiscales, así como los correspondientes Anexos, fueron aprobadas definitivamente el día 23 de diciembre de 2008, y entrarán en vigor el día de su publicación en el BOHA, permaneciendo en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación expresas.

ARAMAIO

8584

Aprobación provisional de Modificación Puntual del PERI del municipio de Aramaio.

El Pleno de la Corporación, en sesión ordinaria celebrada el día 02.12.2008 adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobar con carácter provisional, el expediente de Modificación Puntual del Plan Especial de Rehabilitación Integrada (PERI) del casco histórico de Ibarra de Aramaio.

Se somete a información pública el citado expediente por medio de publicación de anuncio en el BOHA, por el plazo de un mes a fin de que cualquier entidad o persona interesada pueda examinar la documentación y presentar las alegaciones que estime convenientes.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Aramaio, a 15 de diciembre de 2008.– El Alcalde-Presidente de Aramaio, ASIER AGIRRE MUGARZA.